

PEDRO IGNACIO DE BARRUTIA

“*Acto para la Noche Buena*”
López Mendizabal algitaldaria
Latxaga jaunak argitara berria

1983

Barrutiazaleak atsegietan daude. Azkenez, Aramaioko seme argiak idatzitako antzerti-lana bere jatorrean ezagutzeko aukera eskaintzen zaie, Latxaga (J. M. San Sebastián) jaunari esker.

Latxaga jaunak aspalditxoan izen ederra irabazia du euskal-idazle eta ikertzaileen artean. Azken urteotan atzerritik dugu goi-maillako ikas-ikerketak egiten. Gaurkoan ez dakar opari kaxkarra gogoia euskal-literaturan dutenentzat. Mondragoiko eskribau ospetsu, Pedro Ignacio BARRUTIA zenaren *Acto para la Noche Buena*, idazlearen lumatik atera zen bezala argitaratua, barne-azterketa sakon batekin, euskeraz eta erderaz, beste geigarri batzuekin batera.

Barrutiaren irugarren mende-urreneko (1682-1759) otsak ixildu diranean, urtean zear egin diran omenaldi eta gañerako iker-lanei gailurr bardingabea jartera dator Liburu au Mende-urreneko omenaldirik ederrena, noski. Barrutiaren testoa ziurrago ematen zaigu. Aren ilun asko aienatzen zaizkigu. Orain artean, borondaterik onenaz egindako iker-lanek ere ajea zekarten: badaezpadako kopia bat zutela oiñarri, egillearen beraren testoa ezpaitzen ezagutzen. Eta ez testo jatorraren billa alegiñik egin gabez. Baiña artarako ibillera guztiek uts ematen zuten. Non ote zan? Arrasaten? Markiñan?

Ez batean, ez bestean. Ez zan gure artean ageri. Euskalerritik urrutietara bideak egiña zebillen. Nondik nora, eta noiz ezker? Batek badaki. Eta zorioneko egun batez, guztizko ustekabea, begi erne biren aurrean gertatu da, liburu denda batean salgei. Latxaga jaunak bere biziko aukera ori ez du galtzen utzi. Eta gaur, Euskalerrriak galdua zeukan altxor ori Euskalerrria dakar eta euskaldunoi eskaintzen digu, fotokopiatu eta gaiñerako erasiñez ornituri.

Euskal-literaturaren arloan Barrutiak urrats berri au egiten duen une onetan, atsegin dugu eta zillegi bekigu, idazle onen izenak eta gabon-antzertiak gaur arte egin izan duten bidea gogoratzea.

Pedro Ignazio de Barrutia XVII-XVIIIgarren mendeko gizona dugu; baiña beronen izena ez da gure literaturan sartu joan dan mendearen azken

alderarte. Azkuek 1897n illunpetik atera zuen arte. Urte orretan asi zan Azkue gaztea euskera utsezko aldizkari edergarriduna, *Euskalzale*, astero ateraten. Aldizkari orretan bazan lekurik euskerazko literatura zarreko lan batzuentzat. Besteak beste, an ageriko dira Kardaberaz aitaren *Euskerazko Berri Onak*, amaseigarren mendeko esaera zarrak, eta abar. Eta an ageriko da Mondragoitik adiskide batzuk Azkue jaunari biali zioten Gabon Gaberako teatro lantxoak. Erderazko titulua du, eta Azkuek euskerazkoa erantsi dio: Gabon Gaberako Ikuskizuna (oraintsuago beste batzuk *Gabonetako Ikuskizuna* egin digutena). Mondragoiko billatzailea nor dan badakigu: Juan Carlos Guerra, leiñu-gaietan ain jakintsua genuen gizona. Onek Biguritarren eskutik artu eta Azkue jaunari bialtzen dio, ea bere aldizkaritxoan argitaratzen zuen (*aunque sea expurgada de sus escandalosos erderazkos*). Ez dago ukatzerik “erderazko gauza asko eta erderakada geiago” ditu antxerkitxo orrek. Ala aitortzen du Azkuek; baiña ez dio Gerra jaunari jaramonik egingo, eta erderazko gauza eta erderakada guztiekin aterako du, orrazketarik ez garbiketarik egin gabe. *Euskalzalek* artua zeukan moldera ortografia aldatu, besterik ez dio egingo. Non da oraintsu norbaitzuk Azkueri beren burutik asmatu eta ergelki ezarri nai dioten garbizalekeria eta erderakadentzako iguiña?

Iru urtera baizik ez zen iritxi *Euskalzale* aldizkariaren bizia. Irugarren urtea egiñaz batera ilko da, Bilboko gobernadoreak ezarri zizkion ostopoen ostopoz. Aldizkari orren orrietan gelditu da Barrutiaren ikuskizuna. Ia ilbobian bezala sartuta. Zenbatek irakurri ote zuten? Bizkaiko bazterrean ateraten zan aldizkari ori ez zan asko zabaltzen, eta alerik geinak badakigu zer azken izango zuten: sua. Gure erri-biblioteca nausietan ez zuen aztarnarik utzi. Azkue bera arduratu zan, urte bakoitzeko zenbaki batzuk, tomo bat egiñik salgei ipinten. Oraintsu berriz argitaratu duten arte, aldizkariaren ale gutxi batzuk ola iritxi izan dira gure egunetaraño. Olakoxe ale bat, iru tomoak batean zeuzkana, iritxi zan nere eskuetara apaiz aide baten eskutik, orain 50 urte, nere ordu askoren gozarri.

Euskalzaleen artean Barrutiaren lanak zer arrera izan zuen erraz asma dezakegu: ez zuen arrera onik ez txarrik aurkitu, ezagutzen ez zutelako. Donostiar gazte batek, José Arana zenak (geroxeago fraide karmeldar egin zenak), 1925gn urtean, *Euskal-Esnalea* aldizkarian euskerazko teatro lan guztien zerrenda luzea aterako du, asko eta asko euskal-aldizkarietatik jasota: *Euskalzalek* argitaratutakorik bat ere ez. Ez du aldizkari onen iñolako berririk izan.

Ala, urte luzeetan bi gizon baizik ez ditugu aurkituko Barrutiaren aipamenik egitekorik. Bata: Juan Carlos Guerra, bere azter-lan ezagunean: “*Los Cantares Antiguos del Euskara*” liburuan berriz ematen zuen Barrutiaren manuskritoaren berri (Latxagak orain aurkitu duen manuskrito bera). Bigarrena: Azkue bera.

Eta zenbat aldiz, eta nolako aipamena onek egiten dion! Azkuek bere seme kutuntzat darabil beti Barrutiaren antzerkitxoak. Aipatzen duen bakoitzean erakusten du oni dion maitasuna eta lege berezia. Iñoiz ez du aipatuko noiz eta non argitaratu zuen esan gabe: alegia, 1897, *Euskalzale* aldizkaria-

ren orrietan... Eta ñoiz ere ez gorespenezko edo kutuntasunezko itz bat edo beste erantsi gabe: “Antzerkitxo irakurgarria”. “curiosa pieza de escena”, “linda pieza arrancada del pueblo”. Olaxe ainbat aldiz *Morfología Vasca* liburuan, Euskalerrriaren *Yakintzan*, eta beste lan batzuetan. Badirudi irakurlea antzerki ori irakurtzera eraman eta zaletu nai duela.

Olaxe gatoz Azkue il ondoko urteetara. Ark, bizi zela, lan egiten zuen gelan euskaltzale talde batzuk asi dira biltzen. Gela ori beren biltoki eta ikasgela egin dute. Eta an dute, Azkue zanaren bibliotekan, *Euskaltzale*, Barrutiaren antzerkia gordetzen duena ere. Aresti gazteak mundu berri bat aurkitu du bertan. Berak bakarrik, gero, ez beste ñork aurkitutako mundua. Berak baizik ez du jakin gure literaturako bitxirik ederrenetako orren ederra ikustean. Non izan ote zan Azkue alako ederrez ez jabetzeko? Baiña zer zekien Azkuek literatura-gaietan? Gixaxoak ez zuen Barrutiaren lanean baliozkorik ezer ikusi. Bere garbizalekeriaren erruz, arkaismo batzu ikusi zizkiolako baizik ez zuen argitaratu, beste ñolazko baliorik ari aitortu gabe. Arestiren itzetan nor ez zen gelditzen “enorante” uts egiñik? Euskal-teatroaren aztertzaille guztientzat zan aren jipoia.

Arestik sortutako istillu orrekin eta gero egin zituen Barrutiaren nola alako argitaldi berriekin, aitortu bearra dago Barrutiak sarrera andia egin zuela gure literaturaren alortxoan. Ori, batetik, egia da. Baiña, bestetik, egia ere da, aren sustraigabeko ateraldirik gogorrenak dogmatzat gelditu dirala besterik irakurten ez dutenentzat. Eta ez dira gutxi. Arestiren esanei siñiste osoa emanik dabilta oraindik asko. Gai onetan askoren esanek izugarrizko aultasuna eta logikarik eza erakusten dute.

Askok ez dakite oraindik Barrutiaz azter-lanik egiten, Azkue zanaren “enorantzia” ta ez dakit zer-nolako “ausartziak” salatu gabe. Edo ta, Villasanten aitak bere euskal-literaturaren lenengoko edizioan esandakoerekin gelditzen dira, bigarrenekoan zuzendutakoen konturik egin gabe. Lekutan daude asko Gotzon Garate idazleak, Azkue gaztearen nobelatxo bat aztertuz, oraintsu idatzi dituenak onartzeko: alegia, Azkuek antzerki-teknikak maisuki erabiltzen bazekiela, personaiak bizia ematen maisu zela, goi-maillako nobelista izateko gaitasun bikaiñak zeuzkala, eta abar. Gauzarik errezena, baita ere ergelena da, “enorantzia” salatzea. Eta kito.

Aresti bera ere azken aldera asi zala uste dut nik bere iritzietan zalan-tzak izaten eta atzera egiten. Baiña beste batzuk, laster ikusiko dugunez, aurrerago joan dira.

Azkue eta Gerra jaunak izendatu ditut Barrutia luzaroan aipatu zuten bakarren artean. Baiña bada beste bat izenik aipatu gabe ari aitormenik ederrera egin ziona: Abeletxe, Bizkaiko idazlea. Abeletxek aurrea artu zion Arestiri. Abeletxek auxe egin zuen: Barrutiaren antzerkia irakurri, kopiatu, erderazko puskak euskeraz itzuli, erdalkeriak eta beste bitxikeri batzuk kendu, eta sariketa batera bialii, eta saria irabazi. Saria eman zutenak ere ez ditugu Barrutia iguin zutenen artean sartu bearko, noski.

Latxagak eman digun liburuarekin bateratsu agertu da Araban Aramaioko seme Barrutiaren “argitalpen kritikoa” delako bat, erderazko itzulpen eta zenbait ikerlanekin. Arestikeria batzuk aurrerago emanda dauzkagu

bertan. Bi pekatu, bi “ausartzia” egozten dizkiote Azkueri. Lenbiziko pekatua: Bi bertso kentzea, zensuratzea. *Euskalzale* aldizkarian gerraren kopia-ko bi bertso ez ditu argitaratu. Zergatik? “Testoaren errespeto handirik ezaz, literatur baloreetako ezaxolaz”. Nondik atera dute ori? Beren burutik asmatu. Bi bertso oietan itsuskeriren bat ikusi ornen zuen Azkuek, eta zensuratu egin ditu, kanpoan utzi, Guerraren kopian bertan parentesi artean sartuta. Parentesi artean sartzea zensuratzea ote da? Ez ote du ori egin Azkuek, bertso biok, Euskalzalaren falta diralata, orixe gogoratzeko gero egin? Nik bertso bion uts ori erraz ulertzekoa dala uste dut. Urrengo bertso biak berdin asten dira! “Señora virtuosa”. Lenengo biñakoa utzi ta begia bigarrenera joatea erraz bai erraz gerta daitekena baizik ez da. Ez da bete ezer asmatu bearrik.

Bigarren pekatua, bigarren ausartzia: *Euskalzale-ko* testoaren azpian jarri zuen oarra da, erderazko gauza asko eta erderakada geiako zituela gogoratzen zuena. Egia baizik ez du esan Azkuek or. Antzerki orrek erderazko gauza asko ditu: erderazko kantuak, erderazko oarrak, lagun bakoitzak zer egiten duen esateko. Erderakadak, erderazko esaerak, piten pitean. Baiña ori ez da Azkueren ausartzia, Barrutiarena baizik. Nork zer esan bear du oarraren aurka? Eta nork ikusi bear du or, gure kritikook egiten duten bezala, garbizalekeririk edo litertur baloreetako axolarik eza? Lotsa ematen du ain gauza errazak gizon ikasi batzuei, kulturadun batzuei gogoratu bearrik. Betaurreko beltzen batzuk bear dira ain argi dauden gauzak ez ikusteko.

Zorionez, gauden egunotan, irakurri eta entzun dezakegu ganora obez egindako azter-lanik, eta sendatuko al da bein eta betiko zorigaiztoko orduan sartu izan zitzaigun gorriena. Orain Latxagak eman digun testo onekin Barrutiari buruzko azter-lanak ildo obean sartuko al dira! Uste onetan agur bero egitea dagokigu Latxaga jaunaren lan oni. Agur beroa, esker beroa eta zorionak eman bear dizkiogu.

Latxagaren eskutik, leenbizi, Barrutiaren testo jatorra datorkigu, aspal-dian eskuratu nai ta ezin aurkitu genuena. Guerra jaunak Azkue jaunari bialitako kopia ez zen zeatzegia. Badu utsik. Gaiñera bi bertso kopiatu gabe gelditu ziran. Jose ta Mariak ostatuko atea jotzen dutenean, Chato morroiak esaten dituen itzak eta San Josek egiten duen leenengoko agurra falta dira. Parentesi artean jarriko ditugu emen:

Tomas. —Aikora, mutil.

(Chato.—Ordu onetan nor eta dabil? = assoma).

(San Jose.—Xangoikoa biz zurekin.)

Chato.—Flema oberik ekusi dozu urtezen daben zerekin?

Bertso biok batak aurrekoarekin eta besteak urrengoarekin egiten dute bertso. Gure kritiko zorrotzen batzuk jakin izan balute, or zeukaten non burua austen asi, zensuraren bat aurkitzeko.

Barrutiaren itz batzuk buruausterik naiko eman dute, illuntasun batzuk argitu eziñik. Geienak oraingo testoan argiturik edo argiagoturik gelditzen

dira. *Eztok egingo beloa*, irakurten genduen len. Orain onela: *eztok egingo leloa* irakurtzen dala dirudi.

Oker irakurtze bat baiño geiago gertatu dira Barrutiak *V* eta *U* (bai txikia eta bai andia) bardin idazten dituelako. *C* eta *E* ere askotan bardintsu irakurri daitezke. Ola gertatu dira oker-irakurtze batzuk: *Veatu*, *Ukatu-ren ordez*, *Xocudi*, *xobidi-ren ordez*, Mitxelenak, argi ikusi zuen bezala. Baiña alperreko nekerik ere artu izan da beste itz batzuk zuzendu edo azaldu naiez. Barrutiak *auzia* idatzi du eta *ez ansia*. *Erazazuz* era gaizki dago; *ezazuz* da (*garbi ezazuz*, *biur ezazuz*). Beltzune bat edo bestek ez dute azpiko itza ongi irakurten uzten, orain arte gertatzen izan dan bezala. Argi irakurten baiña ulertzen ez dan itz bat ere gelditzen da: *Kaltxapotat* (ez *kaltxapotak*). Norbaitek *aleizako eleizako* irakurri nai izan du. Baiña argi dago *aleizako dala* (bear bada *aleitzako*, Barrutiak *Z* eta *Tz* ezpaititu berezten).

Latxaga jaunak ez du iztegiaren azterketan sartu nai izan. Oraindik beintzat. Antzerkiaren gai eta mamiaz, ordea, azterketa zeatz eta sakona egin digu. Orretan saiatu da, batik bat: antzerki-lagun guztiak, Andre Maria, Jose, aingeruak, deabruak, ostararia, morroiak, artzaiak zein egoki eta jatorri aurkestuak dauden adierazten. Maisu baten eskua ageri da danean. Barrutiaren lana ez da erriko bertsolari soillarena, bai gaiaren eta euskeraren jabe dan gizon kulturadun batena, Mondragoiko eskribauak ez dio ñori lapurretarik egin, ez beste norbaiten lanari ere siñadura ezarri; bere berea du dana.

Eta Latxagaren lana, antzerki-lagunetan zear, antzerkiak ispillatzen dituen erri-oiituretan murgiltzen da. Etxeko andreen oiturak, artzaienak, kalegizon eta tabernagizonenak argitzeraiño. Antzerki onen iturriak ere aztertu naei ditu. Erderazko gabon-antzerkien batek eman ote dio eredia?

Euskerari buruz, muga-euskera aurkitzen dio Barrutiari. Bizkaierazkoa geiena, baiña gipuz-formekin naasi. Iztegia argitzen ere ez du, gaurkoz beintzat, nekerik artu. Baiña ori bai: antzerkian dauden itz eta aditz-formen zerrenda osozkoa eman du, artan lan egin nai lukenaren lagungarri.

Latxagarren liburu au lan-tresna egokia izango da, bear-bearrezkoa, emendik aurrera euskalarien eskuetan. Beronekin Barrutiazaleentzat Azkue zarrarekin asitako garaia amaitu eta garai berria asi dala esan dezakegu.

Lino Akesolo